

Hitzekin jositako istorio sorta

Pello Salaburuk 'Errateko nituenak' liburua argitaratu du, Cuscora egindako bidaian oinarrituta

Ane Urrutikoetxea Donostia

Pello Salabururen (Arizkun, Baztan, 1951) azken liburua ez da no-bela, ez autobiografia, ez poesia liburua, ez fikzioa. Eta ez da kronika, azalak hori badio ere. Erein argitaletxeak kaleratutako *Errateko nituenak* liburua ez ditu genero bakar baten arauak betetzen, guztiak biltzen ditu. EHU Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohi eta Euskaltzaindiko Euskara Batuko Batzordearen burua Cuscon (Peru) aste bete igaro zuen 2012ko udazkenean, eta han bizitako inspiratu du liburua idazteko.

Salabururen arabera, orain arte egindako lanik pertsonalena da, eta Cuscora egindako bidaia «surrealista» izan da liburuaren abiapuntua. «Miren Azkaraterekin batera Perura joan nintzen, bertan hizkuntza planifikazioaren inguruko masterra egiteko. Urteak eman ditugu master hori martxan ipintzeko, eta bertatik sortu dira liburu hainbat istorio». Datu autobiografikoak ere baditu liburua, zenbaitetan fikzioarekin nahastutakoak. Azaleko armarriaren istorioa, esate baterako, nahasketa horren adibide bat da. «Cuscotik Baztanera egindako bidaian gertatutakoak bildu ditut, eta, tartean, Parisen, Amsterdamen, Arizonan (AEBak) eta Txilen bizitakoaren inguruko hausnarketak bildu ditut».



Pello Salaburuk Cuscora (Peru) egindako bidaia hartu du *Errateko nituenak* idazteko oinarri. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Bizipenen puzzlea modu ulergarrian osatzeko, Salaburuk arreta berezia jarri dio idazteko moduari, Baztango lexikodun euskara batua erabiliz. Hala, generoaren nahasketa modu ulergarri eta



Salaburuk egindako hitzen erabilerak euskal literaturaren inguruan hausnartzeko balio du»

ANIEL LERTXUNDI
Idazlea

txukunean egitea lortu du, Aniel Lertxundi idazlearen esanetan. «Pio Barojak zioen nobelaren zakuan denetarik sartzen dela, eta,

beraz, Salabururen lanak ere badu bere tokia». Generoen artean saltoka ibiltzea ez da erraza Lertxundirentzat, baina Salabururen lanak «arintasun handiz» egiten ditu salto horiek, hizkuntzaren antolamenduak eta istorioak ehuntzeko moduak funtzionatzen dutelako.

«Zenburutik hasita, zertan ari den esaten digu Salaburuk». Lertxundiren arabera, euskara batua aberasten du Salabururen idazteko moduak, eta Baztango hizkerak hitzei balio erantsia eman die. «Margolariarentzat margoa bezala, idazlearentzat hitzak dira esaten dugunaren oinarri, eta tresna soila baino askoz gehiago dira. Hitzen erabilera da, hain zuzen ere, liburu honetatik

gehien erakarri nauena. Euskal literaturaren egoeraren inguruan hausnartzeko tresna balioetsua da». Hizkuntzaren inguruko hausnarketa egiteko, hizkera zaintzea garrantzitsua da Lertxundirentzat. «Gehiago da beti hizkuntza eman digutenetik jasotzen duguna, hizkuntzari egiten dizkiogun ekarpenak baino».

Hizkuntza aberastuz

Historian idazle gutxi egin dizkiote ekarpen esanguratsuak hizkuntzari, eta, Lertxundiren esanetan, gainerakoek ekarpen xumeak egin behar dituzte: «Salaburuk marraz kanpo egin du lan zentzu horretan. Espero dut errateko dauzkanak erraten segitzea».

Elton Johnek taldearekin batera joko du BECen azaroaren 2an

Abeslari eta pianista ingelesak iaz kaleratu zuen azkeneko diskoa, 'The Diving Board' izeneko

Eredakzioa Bilbo

Elton John (Londres, 1947) abeslari eta pianistaren kontzertuarekin ospatuko du Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerrek bere 10. urtemuga, azaroaren 2an. *Goodbye Yellow Brick Road* diskoaren 40. urteurrena ospatzeko egingo duen biraren barruan kokatuko da Barakaldoko kontzertua, eta talde batek lagunduta arituko da Elton John.

Ez da hau musikari ingelesa Euskal Herrian ariko den lehenengo aldia. Izan ere, ia-ia, hamar urtetik behin eman du kontzerturen bat. 1986an Donostiako Belodromoan jo zuen; 1995ean, Sadar futbol zelaian, Irufeñan; eta 2004an, Baionako zezen plazan. 2007an Gasteizen jo behar zuen, zezen plazaren irekitze ekitaldian, baina bertan behera gelditu zen kontzertua «arazo teknikoengatik».

Iñaki Markotegi Galtzagorri Elkarteak lehendakari berria izango da

Azken hiru urteetan Aitziber Alonso izan da elkarte burua, eta aurten kargua uztea erabaki du

Eredakzioa

Iñaki Markotegi Galtzagorri Elkarteak lehendakari berria izateko aukeratu dute aho batez. Markotegi Donostiako Intxaurren ikastetxe liburuazaina da, eta ondo ezagutzen du elkarte, aspalditik hango bazkide baita. Horrekin batera, urteetan Galtzagorriko Irakurketa Mintegian parte hartu du, eta bi urtean zuzendaritza batzordeko kide izan da.

Hala, azken hiru urteetako lehendakaria izan den Aitziber Alonso ilustratzailearen lekua hartuko du Markotegik. Bestalde, Alonso kargua utzi arren, zuzendaritzan jarraituko du.

'Bel canto'-aren adibide ona

Kritika

Opera

'I Puritani', Vincenzo Bellini

Abeslariak: Celso Albel, Elena Mosutz, Gabriele Viviani, Simon Orfila. **Bilboko Opera Abesbatza.** **Musikariak:** Nafarroako Orkestra Sinfonikoa. **Musika zuzendaria:** Jose Miguel Perez Sierra. **Eszena zuzendaria:** Alfonso Romero. **Non:** Euskalduna Jauregia. **Noiz:** apirilaren 8a.

Jesús Mari Begoña

Beste behin ere, Bilboko operazaleen *bel canto*arekiko egarria ase ditu OLBEK, Vincenzo Belliniren *I Puritani* operaren bigarren saio honekin. Izan ere, nahiz eta libretoak

ez bururik ez hankarik ez eduki, eta opera horren eredu zaharkitua izan arren, obrak dauzkan doinuak hunkitu egiten gaitu oraindik. Baina ezinbesteko baldintza kantu *fiorito*-an eta goi muturrean eroso abesten duten abeslariak bilatzea da, eta horren zoria izan genuen Elena Mosutz eta Celso Albeloren erakustaldian. Beraz, sopranoak biribildu zuen Elvira maitemindua, eta azken momentura arte, utzia izanaren dramatikoa —esaterako, eromenaren eszenan— horretarako, ahots fina, tinbre atsegina, amasketa eta afinazio bikainak erabili zituen. Eta, goitik beherako kontrola kantu ederrean: hau da, *legatoa, koloraturak, messa di voce, glissandi*...

Maila berean, asko gustatu zitzaigun tenorraren ahotsa, morbidorean eta *di bravura*-ren artean mugitzen zena, gardena, erregularra erregistro guztietan, indartsu agudoetan eta eroso goi muturreko kantuan. Hasierako *A te cara* ariatik hasita, sobregudoetan zebiltzan azken duo eta ariak egin arte, Kanarietako tenorrak dotoretasuna erakutsi zuen kantuan; aldiz, ausartaren irudia baino, zorabiatuaren itxura dramatiko eman zuen, tamalez, Biek ala biek jaso zituzten publikoaren txaloaldiak.

Beste maila batean, Gabrielle Viviani baritonak zuzentasuna kantuan eta eskarmentua tauletan adierazi zituen bolumen erdiko ahotsarekin eta guturalare-

kin. Atsegin ez entzun genuen Simon Orfilaren ahots tinbratua. Biek ala biek *Suoni la tromba intrepida* duo aberkoia egin zuten publikoaren onarpenarekin. Gustatu egin zitzaigun Giovanna Lanza mezzosoaren ahots koloretsua eta beroa, eta pena izan zen zati handiagotan entzun ahal ez izatea. Fernando Latorre eta Alberto Nuñezek egoki bete zuten bakoitzaren kantaldia. Musikagintzaren arloan, oso ona izan zen Jose Miguel Perez Sierra zuzendaritza Nafarroako Orkestra Sinfoniko ederraren aurrean. Alta, ohikoa ez den moduan, Bilboko Operaren Abesbatza arazoak izan zituen denborapasekin hainbat sarreratan sartzean.